

Zortzi hankako animalia artropodoa. Berak jariatzen duen gai likatsuaz intsektuak harrapatzeko sare bat egiten duena.

Zama aberea, zaldiaren antzekoa, hura baino txikiagoa, belarri-luzea eta larru-latza. Baserriko lanetan erabili izan da.

Txori txiki kantaria, bekokia, lepoa eta paparra gorri biziak dituena.

Euliaren familiako intsektu hegalaria, hura baino txikiagoa, hanka luze eta meheak dituena eta pertsoneri eta abereei ziztada mingarriak egiten dizkiena.

Ugaztun handia, azal-zimurra eta belarri-eroriak, tronpa moduko sudur luzea eta letagin handi eta ageriak dituena. Afrikan edo Asian topatu ditzakegu.

Zefalopodo mota, burua handia, begiak irtenak eta zortzi garro dituena. Itsasoko uretan bizi da.

Hegazti sarraskijalea, handia, mokoa kakoduna eta burua eta lepoa soilak dituena, batez ere abere hilak jaten dituena.

Astoa

Putrea

Olagarroa

Elefantea

Eltxo

Armiarma

Txantxangorria